

GEBren dokumentazio zentroko 2020ko ekaineko artikulu nabarmenak



HERRERA PASTOR, D., PADILLA CARMONA, M. T. y GONZÁLEZ MONTEAGUDO, J., 2020. [Acompañamiento sociopedagógico, holismo y longitudinalidad: Claves de una buena práctica con un menor infractor](#). Revista Fuentes, vol. 22, nº 1, p. 53-64. ISSN-e 2172-7775

Artikulu hau Omarren kasu paregabearen inguruan egindako ikerketa batetik abiatzen da. Adingabe arau-hausle hori adingabeen hezitzaile bihurtu zen, batez ere Espainiako justizia-sistemak ezarri zion gazte-erreformako prozesuaren ondorioz. Idatzi honen ardatza da jardunbide egoki haren funtsezko gakoetako batzuk aztertzea. Ikerketa egiteko metodologia biografikoa erabili zen, kontakizun gurutzatuen eredu erabiliz.

Informazio-iturri nagusiak hauek izan ziren: a) Omar eta beste hamazazpi funtsezko pertsonaia (kasuaren epailea, barneratze-zentroko zuzendariordea, zaintzapeko askatasunaren tutorea, Espainian hura hartu zuen ama, etab.); b) Adingabeen Epaitegian eta Gazteen Erreformatarako Zuzendaritza Nagusian dituen espedienteak, eta c) argazki-erregistro zabala, funtsean barneratze-zentroan izandako esperientzian ateratakoak. Analiaren ardatzak hauek dira: 1) emandako laguntza soziopedagogikoa, 2) esku-hartzearen izaera holistikoa eta 3) haren luzetarako izaera. Eta zentratzen da barneratze-zentroko gizarte-langileak garatutako esku-hartzean, hura izan baitzen gazte-erreformako prozesu osoaren oinarria (ez soilik ofizialki Omar parte zen neurri judizialarena). Ondorioetan honako hau zehazten da: 1) zergatik den oso egokia laguntza soziopedagogikoa horrelako kasuetarako; 2) pertsona errazago eralda daitekeela, haren inguruabarrak egokituz gero, eta 3) intersektionalitatea prozesu osoan koordinatu behar dela.

5.ª - 2020ko MARTXO - EUSKAL HEZKUNTZAREN ALDIZKARIA
hh
hik hasi



HIK HASI, GUK SEGI

HIK HASI. **Elkarrizketa: Enrique M. Reguera**. Hik hasi, nº 246, p. 28-35. ISSN 1135-4690

Psikologoa, filosofoa, pedagogoa eta idazlea da Enrique Martínez Reguera galiziarra, baina berak azpimarratzen duen moduan "denen gainetik pertsona naiz". 60 urte pasa ditu hezkuntza-arloan lanean, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan eta unibertsitatean, baina laster konturatu zen inork nahi ez zituen ume zailekin moldatzen zela ondoen. Urte luzez ibili da zaurgarritasun-egoeran dauden haur eta nerabeekin lanean, Madrilen gehienbat, han bizi delako eta han lan egin duelako. Etxean hartu izan ditu epaileek eta erakundeek bidalitako umeak, haiekin bizi izan da. Eta argi eta ozen dio ikasi duen guztia ume horiek erakutsi diotela, ez unibertsitateak. Haiekin ikasitakoa partekatu zuen Donostiako EHUn aretoa gainezka zuelarik eta, orain, elkarrizketa honetan xehetu ditu bizitu eta ikasitakoak.

Genero-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeak osatzen urteetan lan egin ondoren, kolektibo horri arreta ematen diogun profesionalek kezka hartzen dugu bikote-harremanetan indarkeria-egoerak jasaten dituzten neska gazteen kopurua. Oso emakume gazteak dira, eta, batzuetan, ikasketak edo berehalako bizi-proiektua utzi behar izan dituzte egoera horren ondorioz. Errealitate horrek, estatistikek ematen dituzten zifrekin batera, gazteen artean berdintasunari dagokionez zer gertatzen ari den hausnartzera garamatza; indarkeria prebenitzeko eta berdintasunezko harremanak eraikitzeke hezkuntza-programak zenbateraino ari diren eraginkorrak izaten. Gazteen kolektiboak indarkeria gisa identifikatzen ditu eraso fisikoak eta irainak, baina bikote-harremanean kontrol-portaerak normalizatzeko joera du, maitasun erromantikoaren mitoei eta genero-estereotipoei erantzuten dieten kontrol-portaerak: jelskortasuna, mugikorreko mezuen zaintza eta berrikuspena, sare sozialen bidezko kontrola, bestearen nahiei men egitea eta abar eta abar.